

Egoitza - 1285 zenb.
XX. urtea - 2023-05-12

TOKIKOM

BARREN



Hiru hautagai aulki baterako



1998-06-14

EXPRESS ESKAINTZAK!

LG F4WV301S6WA
ARROPA GARBIGAILUA

549 €

A



- 10,5 kg-ko edukiera
- Lurrun programa
- 1.400 b/min
- Motore alderanzgailu zuzena

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dienzako prezioak. Produktuak agortu arte.

Uzuri

 ELGOIBAR - DEBA
optika audio

ESKAINTZA



Graduatu gehien gustatzen
zaizun eguzkitako betaurrekoa

Urrutiko lenteak +19€

Polarizatuak +49€

Progresiboak +99€

(*galdetu baldintzak)

RPS 181/19

aldaz

horts klinikak · clínicas dentales

KONTSULTATEGIA

“Hortzoiak garbitzerakoan
odola ateratzen zait.
Dentistarengana
joan behar al dut?”

Hortzoiak garbitzerakoan odola ateratzen zait. Dentistarengana joan behar al dut? Pertsona askok uste dute hortzoietak odoljarria ohikoa dela hortzak eskuilatzean; hortzoiaren eta eskuilaren arteko marruskaduraren ondorioz sortzen dela pentsatu ohi da, baina egoera normalean, hortzoi osasuntsu batek ez luke odolik atera beharko eskuilaitzerakoan.



Hortzoietako odoljarria gaixotasun periodontal baten seinale izan daiteke, eta behar bezala tratatzen ez bada, hortzak galtzea eragin dezake. Kasu batzuetan, hortzak garbitzeko teknika desegoki batek ere eragin dezake. Kasu horietan, garrantzitsua da eskuilatzeko teknika egoki bat hartzea eta zure hortzoiaren gaineko presioa murriztuko duen zurda leuneko hortzetako eskuila erabiltzea.

Eskuilatzeko teknika aldatu ondoren eta eskuila egokira aldatu ondoren zure hortzoiak odoletan jarraitzen badute, dentistarengana joatea gomendatzen dizugu, gaixotasun periodontala izanez gero ahal den azkarren tratatu dezan.

Ez ahaztu zure hortzoietako odoljarria, zure aho-osasuna hortzoiaren menpe ere badago eta!

ALDAZ HORTZ KLINIKA

San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com

943 366 377

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus




instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Izaro Etxegibel Soraluze Euskara teknikaria

Izena eta izana



"Sarri aldatzen zioten, esez idazten, jatorriaz eta esanahiaz galdetzen, itzulpenik ba ote zuen ala ez"

Garai hartako udetan ez zen bere izenarekin giltzatarokik, ez eta harizko eskumuturrekorik, ez koilarerik ere ferietako pitxi postuetan, espartzuzko saskitxorik eta trapuzko panpinarik ere ez. Enkarguz josi, bordatu edo margotu ohi zizkieten, hurrengo egunerako.

Behin eta berriz errepikatu behar izaten zuen bere izena, uler ziezaioten; ohitua zen letraka esatera, ozen eta garbi ahoskatzera. Etsita, isilik geratzen zen beste batzuetan, zuzendu gabe, egunaren eta aldartearen arabera, nekatuta. Esfortzuak ez zuen merezi. Sarri aldatzen zioten, esez idazten, jatorriaz eta esanahiaz galdetzen, itzulpenik ba ote zuen ala ez. Bizipenek ohartarazi zuten izenaren garrantziaz, eta txiki-txikitatik erakargarri zaio gaia, gaurdaino. Hasieran, pertsona izenetan arreata jartzen hasi zen bereziki, abizenetan gero, ezizenetan, izen arruntetan, leku izenetan, loreenetan... *Kresala, labarra, enbata, kaia, abakandoa...* itsasoarekin zerikusia duten izenek liluratzen dute ordutik.

Izanaz gain izena ere izateak badu garrantzia, eta ez nolanhikoa. Jokin Urainek idatzi zuen behin izena izanez gero, batik bat itzal handikoa bada izen hori, izanik ez izatea ez dela hondamendia. Izenik ez baduzu, berriz, alferrik zabiltzala, ez zarela ezer, ez zarela inor, ez duzula deus lortuko inon eta inoiz.

Izaro bat ur artean bezala sentitzen zen lehen; aldatu dira gauzak orain: itsasoak ez du ahaztua bere izena.

Egongo da zure udetan, noizbait, zuretzat giltzatarokik, harizko eskumuturrekorik, koilarerik, espartzuzko saskitxorik eta trapuzko panpinarik ferietako pitxi postuetan. Ez arduratu, bestela, polita da izen berezia izatea. Zu zeu ere berezi egiten zaitu eta besteengandik ezberdindu, hori da izenaren funtzioa, ez al da? Ulertuko duzu.



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus

 943 744 112

688 655 658



Kiroldegiko langileen grebaren harira, ondorengo galdera egin digu herritar batek:

"Zer gertatuko da kiroldegiko grebak irauten duen bitartean erabiltzaileen kuotekin? Ni neu igerilekuko erabiltzailea naiz soilik eta, beraz, alferrik ari naiz zerbitzua ordaintzen, igerilekua itxita dagoelako. Deskonturen bat egitea edo kuotaren zati bat itzultzea aurreikusten al du Udal Patronatuak? Eta, laster ekaina datorrela ikusita, Mintxetako igerilekuak zabaltzeari eragingo al dio grebak?". BARRENEK Kirol

Patronatura jo du erantzun bila, eta Ramon Mujika zuzendariak ondorengo erantzun du: "Sorosleen greba bukatzen denean Elgoibarko Udal Patronatuak erabakiko du zein neurri hartu edo nola konpentsatu igerilekua itxita egon den denboragatik. Hainbat planteamendu daude mahai gainean eta datorren Patronatuko Zuzendaritza Batzordean jorratuko dugu gaia. Bestalde, hilabete bat baino gehiago falta da Mintxetako igerilekua irekitzeko eta momentua iristen denean aztertuko dugu zein den egoera".



Txalo bero bat 'Jolasa kalera barixakuetan' egitasmoaren antolatzaileei.

"Ez da erraza izaten 0-5 urte bitarteko haurrentzako ekintza hezitzaileak antolatzea eta asmatu delakoan nago: eraikuntza jolasak, esperimentazio jolasak, sormena lantzeko jolasak... oro har, aire librean jolas liberako aukera!. Eskerrik asko, eta segi horrela!.



Zorionak eta eskerrik asko Erraldoien Topaketa antolatu zutenei:

"Familia ugari hurbildu ginen eta giro paregabea sortu zen herrian. Hurrengo urteetan ere jarraipena izatea polita litzateke".



Zorionak C.D. Elgoibarreko talde nagusiari mailaz igo delako:

"Zorionak C.D. Elgoibarreko talde nagusiari Erregional mailatik Ohorezko Mailara igo direlako. Asteburuan zaleekin batera egindako ospakizun ekintza emozioz betetakoa izan zen. Baita ere, nola ez, mila esker eta txalo bero bat klubari eta batez ere zuzendaritzari, urte guzti hauetan emakumeen futbola indartzeko egindako lana izugarria izan baita".



Beren protesta kalera eramán dute berriro Elgoibarko kiroldegiko langileek



Joan den apirilaren 22az geroztik greba mugagabeán daude Elgoibarko Olaizaga kiroldegian eta Mintxetan lan egiten duten langileak, eta barikuan, elkarretaratzea egin zuten berriro Kalegoen plazan. Udal Kirol Patronatuak azpikontrataturako BPXport enpresarentzat ari dira lanean eta azkeneko 11 urteetan ez dietela soldatarik igo salatzen dute. Are, salatu dute 2012an %10 jaitzi zizkietela soldatak, ustez behin behinean, baina gerora mantendu egin dietela

murrizketa hori. Enpresak 2012an galdu zuten soldataren %10 hori berreskuratzea eskaintzen die, baina KPIa eta soldatak eguneratzea eskatzen dute eurek. Langileek eskatuta, martitzenean bilera egin zuten enpresako arduradunekin. Langileen ordezkariak BARRENI azaldu dionez, enpresak ez du negoziatzeko jarrerarik erakutsi eta bere proposamenari eusten dio. Momentuz, beraz, egoera berean jarraitzen du gatazkak eta langileek protestan jarraituko dute.

Mendaroko EH Bilduren hautagaitza babesteko argazkia, gaur

Mendaroko EH Bilduk aurkeztu du dagoeneko maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako hautagaien zerrenda, eta gaur arratsaldean

zerrenda hori babesteko argazkia aterako dute. Herritarrei dei egin diete argazki horretara batzeko. 19:00etan izango da, Herriko Enparantzan.

Mendaroko txokolategira bisita gingo dute bihar, hilak 13

Maiatzaren 14an Erroten Eguna ospatuko dute Gipuzkoa osoan, eta egun hori aitzakia hartuta, 28 herritako errotak ezagutzeko bisitak antolatu ditu Ihurrita Errota Sustatzeko Elkartek, tartean Mendaroko txokolategira, hango kakao errota ezagutzeko. Joan zen zapatuan zuten egitekoa lehenengo bisita Mendaroko txokolategira, eta bihar, hilak 13, eta hurrengo zapatuan, hilak 20, izango dira hurrengo biak.

Interesa izanez gero, izena eman behar da info@chocolatesdemendaro.com helbidera idatzita. Mezua idazten dutenei erantzunean zehaztuko diete ordua.

Deba ibaia biziberritzeko proiektua aurkeztuko du Elgoibarko EH Bilduk, bihar

Deba ibaia biziberritzeko proiektua jaso du Elgoibarko EH Bilduk udal hauteskundeetarako programan, eta biharko, hilak 13rako, ekitaldi ibiltari bat antolatu dute proiektua aurkezteko. 11:30ean abiatuko dira Goikoerrotako zubitik (Santa Ana kale bukaeran), eta bi geldiuene egingo dituzte bidean: bata, Txankakuako zubian, eta bestea, Maalako zubi inguruan. Tolosako alkate izandako eta gaur Eusko Legebiltzarrean legebiltzarkide den Ibai Iriarte gonbidatu dute ekitaldira, eta Iriartez gain, Aitziber Aranberri Elgoibarko alkategaiak eta Fermin Lazkano zerrendakideak ere parte hartuko dute. Hainbat gairi buruz hitz egingo digute bidean. Ibilaldia 13:00etarako bukatzea aurreikusten dute.

Elgoibarko museoak zabalik egongo dira eguenean, Museoen Nazioarteko Eguna delako



Maiatzaren 18an ospatzen da Museoen Nazioarteko Eguna, eta horrekin bat egingo dute Elgoibarko museoek. Hori dela-eta, eguenean atek zabalduko dituzte Mufomi fosil eta mineralen museoak, IMHko makina erremintaren museoak eta Hezur museoak. 9:30etik hiru museoak jarraian bisitatzeko aukera izango dute eskola-umeek. Arratsaldean ere, 12:30etik 17:00etara zabalik egongo dira Mufomi eta IMHko museoa.

Emakumeentzako tertulia saioa lotu dute Mendaron maiatzaren 18rako

Martxoan egin zuten saioak izandako arakastaren ondotik, emakumeentzako beste tertulia saio bat antolatu du Mendaroko Udalak hilaren 18rako. Jubilatuen ondoko lokalean izango da, 18:00etan hasita. Udaletik jakinarazi dute herriko emakume hego-amerikarrek euren herriko jatekoa prestatuko dutela saiorako.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur arratsaldean Jubilatuen Biltokian

Gaur arratsaldean odol ateratzeak egingo dituzte Elgoibarren, Jubilatuen Biltokian, 16:30etik 20:10era. Arduradunek txanda aurrez hartzeko eskatu dute, telefono zenbaki honetara Whatsapp mezu bat bidalita: 623 328 408.

Errigorako produktuak gaur banatuko dituzte Mendaron

Errigoraren kanpainako produktuak erosi dituzten mendarotarrek gaur arratsaldean jaso beharko dituzte, Jubilatuen Biltoki ondoko lokalean, 18:30etik 20:00etara bitartean.

Zerua gauzez begiztatzeko irteera antolatu dute hilaren 19rako

Zerua gauzez ezagutzeko irteera antolatu dute Atxutxiamaikak, Morkaikok eta Baso Biziak elkarteak, Udalaren babesarekin. Idotorbeko frontoian egingo dute. 20:30etik aurrera bilduko dira eta bertan afaltzeko aukera egongo da, bakoitzak bere jatekoa eramanda. Izarrak ikusteko saioa 21:30ean hasiko da, eta Jokin Martinezek gidatuko du. Prismatikoak eta linterna eramateko gomendioa egin dute.

Elgoibarko kultur elkarte eta eragileentzako dirulaguntzak

40.000 euro banatuko ditu Elgoibarko Udalak irabazi asmorik gabeko kultur elkarte eta eragileen artean. Eskabideak aurkezteko azken eguna maiatzaren 19a da, eta eskaerak telematikoki egin behar dira: www.elgoibar.eus.


Baldintzapean aske laga dute Sebas Etxaniz preso elgoibartarra

Etixeratetik jakinarazi dute Sebas Etxaniz Alkorta preso elgoibarra baldintzapean aske laga dutela, 20 urte eta erdiko espetxealdiaren ostean. Etxanizek 80 urte beteko ditu aurtan, eta 2019an bete zituen zigorraren hiru laurdenak.

Euskararen eta kulturaren azokan parte hartu dute Elgoibarko Izarrak eta Baso Biziak-ek, Beran

Euskararen erabilera, sentsibilizazioan eta sustapenean eragina duten proiektuak aurkezteko azoka egin zuten zapatuan Beran Euskaltzaleon Topaguneak antolatuta, eta bertan izan ziren Elgoibarko Izarrako eta Baso Biziak elkarteko ordezkariak, *Gure natura ezagutzuz* egitasmoa aurkezten.

Guztira, hamasei proiektu aurkeztu zituzten Euskal Herri osotik joandako eragileek. Errealitate eta hutsune edota behar zehatzeki erantzuteko sortutako proiektuak ziren hamaseiak, baina aldi berean, esportagarriak eta moldagarriak izateko bokazioa zutenak, eta horrexegatik eraman zituzten azokara ere. Besteak beste honako proiektuak ezagutzeko aukera izan zuten azokara



batutakoek: nazioarteko hizkuntza gutxituen gazte aktibisten saretea eta Bortziritako eskualdetze esperientzia; herrigintza euskaratik ahalbideratzen duten proiektuak; eremu digitalera begirako egitasmo ezberdinak eta aisialdiarekin zein hezkuntzarekin lotutako tresna berritzaileak eskaintzen dituztenak.

Elkar zaintzeko sistema publiko komunitario baten alde egin du Esti Elduaien EH Bilduko batzarkideak Mendaron



Zaintza publiko komunitario eta doakoranzko bidea nola egin aurreikusten duten azaldu zuen Esti Elduaien EH Bilduko batzarkideak Mendaron eguaztenean. Jabi Muñoz Moreno Mendaroko EHBilduko zerrendakideak gidatu zuen saioa. Zaintza erdigunean jarri eta zaintzaren merkantilizazioaren kontra egin beharraz jardun zen Elduaien eta EH Bilduk gobernatzan duen herrietan zaintza komunitario baterako bidean abiatutako ekimenen berri ere eman zuen. Eskumen asko udal-eremutik kanpokoak izan arren, zaintza lanen demokratizazioarako Udaletik susta daitezkeen neurriak ere azaldu zituen.

Uztargi tabernak irabazi du Mendaroko Pintxo Lehiaketa

Joan den apirilaren 22an eta 23an egin zuten pintxo lehiaketa Mendaron, eta Uztargi tabernakoek prestatutakoa izan zen epaimahaikideen eta herritarren pintxorik gustukuena. 3.849 puntu batu zituen Uztargik, eta 2.671, bigarren sarituak, Lagun Betikoak-ek. Herritarrek emandako bototan, 433 jaso zituen Uztargik eta 341 Lagun Betikoak-ek. Hirugarren pintxorik onena Ormolakoa izan zen, bai epaimahai ofizialaren arabera, bai herritarren arabera ere, eta Aitz Beltz tabernak egin zuen laugarren. Lehenengo hiru sarituek garaikur bana jaso dute, eta Uztargik, amantal bat ere bai. Lehiaketan botoa eman zuten herritar guztien artean 50 euroko hiru erosketa bono zozkatu zituen Udalak eta hauek izan dira sarituak: Ainhoa (abizenik ez dute jakinarazi), Ana Fernandez eta Oscar Lazpieza. Udaletik eskerrak eman dizkiete parte hartu duten ostalariei, bai eta herritarrei ere.



Zure beharrei begira



ikastola

HH00-01 MATRIKULA ALDIA

2022-23an JAIOTAKO HAURRENTZAT
MAIATZAREN 15etik 26ra
ATE IREKIAK MAIATZAREN 15ean, 18:00etan



elgoibar ikastola



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295
629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutzak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

X. URTEURRENA

Hortensia Perez Gonzalez

2013ko maiatzaren 13an hil zen, 85 urte zituela.

Zorionekoak gu!

Jaio eta elkar bilatu beharrik ez.

Maitasunez beterik gidatu gaituzu, eta zuri esker,
gure bihotzek taupadaka jarraitzen dute ahaztu ezinik.

Maite zaitugu!

Etxekoak



|| Zientziak hartuko du Lekueder maiatzaren 20an

Zientzia azokaren bigarren edizioa antolatu dute maiatzaren 20rako, Elgoibarko umeek zientziaren eta teknologiaren arloan lantzen dituzten proiektuak herriari erakusteko, eta baita ere, zientziarekin, teknologiarekin eta berrikuntzarekin lotutako balioak sustatzeko eta kultura zientifikoa handitzeko. 11:00etatik 14:00etara egingo dute azoka, eta 38 postu jarriko dituzte Lekueder parkean, Elgoibarko ikastetxeetako ikasleen proiektuekin eta Bizilabe ekimenean parte hartzen duten haurren lanekin. Horrez gain, robotika ikastaroko ikasleen lanen postuak, stand profesionalak eta Lanbide heziketako ikastetxeen eta unibertsitateen postuak ere egongo dira.

8 bizipen zientifiko aukeran

Bizipen zientifiko desberdinak izango dira



aukeran eta HH2tik aurrerako umeek tailerretan parte hartzeko aukera edukiko dute. Horretarako izena beharko dute informazio gunean, 10:30etik 12:45era.

1 STEAM PROIEKTUAK

Azokan parte hartuko duten eragileen steam proiektuak egongo dira ikusgai. Hauek dira aurtengo partaideak: Elgoibar BHI, Elgoibar Ikastola, Herri Eskola, IMH Campus, MEKA Lanbide Eskola, Bizilabe, Robotika dibertigarria, DanobatGroup, Berkoa eta Somabe.

2 TXIKITXOKOA (HH2-HH5)

Hainbat gune jarriko dituzte: Uraren grabitatea, magnetismoa, haizearen tunela, penduloa, joku heuristikoa eta esperimentazio mahaia.

3 APHERO MINI-REN IBILALDIA SMART CITY-N (HH5)

Sphero Mini robot bat da, eta programatu egin daiteke. Erronka: robota hiriko puntu batetik bestera automatikoki joatea, kaleen eta hiriaren mugak Lego piezekin ezarrita.

4 OZOBOT-EN IBILALDIA SMART CITY-N (LH1-LH2)

Ozobot sentsore desberdin ugari dituen robota da, eta haren mugimenduak oso zehatzak dira. Robota hiri osoa modu autonomoan zeharkatzeko gai izateko moduan programatu beharko da.

5 ERREALITATE AREAGOTUA (LH3-LH4)

Itsas ingurunea birsortuko dute, ontziak haizearekin mugituz eta txalupak arraunekin. Hegaztiak, bestalde, bizitasuna emango dute, eta klima aldakorraren arabera mugituko dira.

6 STEAM GINKANA (LH4-DBH1)

Aurkikuntzaz eta erronka zientifiko-teknologikoz betetako abentura batean murgiltzeko ariketa izango da. Ginkana hau jarduera ezin hobea da adimena, logika eta trebetasun zientifiko-teknologikoak probatzeko.

7 WEREABLE-AK - ZIRKUITU ELEKTRIKOAK (LH4-DBH1)

Zirkuitu elektrikoei buruz ikasi ahal izango dute umeek modu dibertigarri eta praktikoan. Argidun pin apaingarriak sortu eta plastilina eroalearekin zirkuitu elektrikoak egingo dituzte.

8 ATMOSFERAREN PRESIOA AZTERTZEN (LH4-DBH1)

Atmosferaren indarraren misterioa eta nola eragiten dion gure munduari ikasteko jarduera da. Presio atmosferikoari eta haren propietateei buruzko erakustaldia egindo dute, STEAM hezitzailearen laguntzarekin.



ERRALDOIEN ERRITMORA

✍ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea

Haritz Dantza Taldearen 50. urteurreneko egitarauaren barruan erraldoien topaketa egin zuten zapatuan. Tafalla, Barañain eta Iruñeko erraldoiak bildu ziren topaketan Elgoibarkoekin batera, eta ohi den moduan, ikusmin handia sortu zuten, ume zein helduen artean. Kalegoen plazan hasita, kalejira egin zuten herrian zehar, eta Elgoibarko zein kanpoko jendea erraldoien erritmora ibili zen eguerdira arte. Bideoa eta argazki gehiago: barren.eus





MENDAROKO ALKATEGAIEN AURKEZPENA

✍️ Ainhoa Andonegi / Ainara Argoitia 🗣️ Asier Orbea

Maiatzaren 28an egingo dituzte Udal eta Foru Hauteskundeak, eta alderdi politikoak buru-belarri dabilta. Bart hasi da hauteskunde kanpaina, eta datozen bi asteotan herritarrei botoa eskatzen arituko dira denak.

BARREN astekarian jarraipen berezia egingo diegu Udal Hauteskunderi. Dagoeneko alkategaiak eta alderdien zerrendak argitaratu ditugu aldizkarian, eta bi aste hauetan alkategaiak eta

alderdien programak ezagutzeko elkarrizketak emango ditugu. Gaurko alean Mendaroko alkategaiak ezagutzeko aukera izango duzue: EAJko Iñaki Agirre, EH Bilduko Enetz Ezenarro eta PSE-EEko Mari Jose Telleria.

Herritarrei ere eman diegu aukera alkategaiei galderak egiteko, eta jaso ditugun galdera guztiak egin dizkiegu alkategaiei. Herritarren galderak bidez erantzun dituzte, eta *barren.eus* atarian argitaratuko ditugu astelehenerako.

Datorren astean Elgoibarko hautagaien elkarrizketak kaleratuko ditugu

Elgoibarren bost alkategai izango ditugu, eta horiek ezagutzeko aukera izango duzue datorren asteko alean. EAJko Maialen Gurrutxaga, EHBilduko Aitziber Aranberri, PSE-EEko Ariana Nogales eta Podemos-eko Evaristo Rodriguez. Herritarren galderak bideoan erantzun dituzte eta maiatzaren 22rako argitaratuko ditugu *barren.eus*-en. PPren hautagaia Aranzazu Contreras Cordero izango da, baina, alderditik ez digute momentuan harekin harremanetan jartzeko biderik egin.



Maialen Gurrutxaga
EAJ-PNV



Aitziber Aranberri
EH Bildu



Ariana Nogales
PSE-EE



Evaristo Rodriguez
Elkarrekin-Podemos

Emaitzak on-line eta paperean

Hauteskunde gauean *Barren.eus* atarian emango ditugu Elgoibarko eta Mendaroko emaitzak, eta hilaren 29an ale berezia argitaratuko dugu paperean emaitzekin eta alkategaien lehen balorazioekin. Okindegietan eta herriko hainbat establezimendutan banatuko ditugu aleak, herritarrek har ditzaten.



“Gure taldeak indarra eta konpromisoa erakutsi du gure herriarekin”

Herri euskalduna gara eta euskaraz bizi gara; baina erabileran jarri behar dugu arreta.

Zer eskaintza dakar zure alderdiak Mendaro herri abegikorragoa egiteko?

Mendaro jada abegikorra da. Guztiz. Baina erabat dago zer hobetu. Eboluzio konstantean aurkitzen da gizartea, baita herria ere. Beharrak sortzen doaz erabat, ereduak aldatzen, eta bide horretan tinko jarraitzea ezinbestekoa da herria bera, zein herritarrak, atzean gera ez daitezen. Oinezkoentzako herria osatu nahi dugu, espaloiak zabaldu, espazio atseginak sortu, irisgarri egin herria. Parkeak berritu nahi ditugu ere, eta adin eta gustu ezberdinetarako guneak eskaini.

Gizartean, eta bereziki gazteen artean, erakundeen eta alderdi politikoen aurkako sumindura, etsipena eta frustrazioa orokortu egin direla diote azken ikerketek eta alderdietatik kanpo politika egiteko hautua zabaltzen ari dela. Zuen posiziotik zer gogoeta egiten duzue honen inguruan?

Politika da erreminta bat gehiago eta osagarriak direla deritzot. Sumindura uler dezaket, baina gazteak herri eraikuntzan inplikatzera eta parte hartzera animatzen ditut, polita delako zure etorkizunaren eraikuntzan parte-hartzera.

Pandemiak erakutsi du egoera zaurgarrienetan haurrak eta adin nagusikoak direla ahaztuenak, ez direlako parametro produktibistetan txertatzen. Nola bideratuko zenukete haienganako kudeaketa publikoa direnak baino zaurgarriago izan ez daitezen?

Mendaron ez da hala izan. Adin nagusikoei babes maila oso altua ezarri diegu:

*"Egin dugun politika publiko
ororen erdigunean
mendaroarrak daude.*

*Beti bilatzen dugu euren ongizatea.
Beti"*

*"Lurzoru industrialia handitzeko lanean
ari gara legealdi hasieratik. 2.000
metro koadroko zoru industrial gehiago
eraiki da ESSER industrialdean"*

medikamentuak etxera eramanez, erosketak, laguntzak eskainiz... Mendaroko Udalak gizarte zerbitzu benetan indartsuak ditu eta laguntzen %100 bermatzen dugu, baita haur zein adin nagusikoei ere. Kudeaketan sakondu behar dugu komunitate izaera horretan, hurkoaren laguntzan, elkar egoteko espazioak sustatuz, elkar babestuz.

Nola definituko zenuke gazteekin duzuen harremana? Zer duzue haiei eskaintzeko?

Gazteak ez dira etorkizuna soilik, gaur egungo gizartearen pieza oso garrantzitsua dira. Eskaintzeko dugu guztia: etxebizitza aukerak, aisia eskaintza, azpiegitura egokiak, lan aukerak... Hori eraikitzen ari gara, baita eurentzako ere. 2022an diagnostikoa egin ostean, Gazte Plana abian jartzera goaz ekainean, eurei zehazki egokitutako Mendarori bidea emateko.

Ekonomiaren eta enpleguaren arloetan zertan sakonduko duzue? Zein izango da zuen proiektu izarra?

Ekonomia alorrean lurzoru industrialia handitzeko lanean ari gara legealdi hasieratik. 2.000 metro koadroko zoru industrial gehiago eraiki da ESSER industrialdean, baina gehiago behar dugu. Enpresak mantendu eta berriak erakartzea ezinbestekoa da mendaroarren ongizatea bermatzeko. Kalitatezko enplegua bizi-kalitate hobearren seinale baita.

Bizitzak erdigunen jarri behar direla babestu duzue. Zer ulertzen duzu bizitzak erdigunean jartzearekin? Zein da zure taldeak proposatzen duen eredu?

Egin dugun politika publiko ororen erdigunean mendaroarrak daude. Beti bilatzen dugu euren

ongizatea. Beti. Edozein proiektuk du gizarte hobe bat eraikitzeko helburua. Bide horretan jarraituko dugu.

Mendaron beste 5-6 aztarnartegi egon daitezkeela esatea ez da disparte zioen Alvaro Arrizabalaga EHUko irakaslea. Zein neurri hartzea aurreikusten duzu ondare natural eta arkeologikoa babesteko?

Zaindu, babestu eta sustatzea. Noski. Gure historia da hori. Azterketa arkeologiko ugari ditugu abian, eta jarraituko dugu bide horretan gure arbasoen aztarnak berreskuratzen eta herritarren esku jartzen. Programa horiek EHUrekin batera burutzen ditugu. Ezinbestekoa da gure historia ezagutzea eta ulertzea gizarte hobe bat osatzen jarraitzeko.

Herritarren parte-hartzea sustatzeko asmoak alderdi guztien programetan jasotzen dira urtero. Nola ulertzen duzu herritarren parte-hartzea? Nola egin asmo duzue jendeak herritar parte-hartze aktiboaren rola har dezan?

Ulertzen dut herritarrak udal erabaki orotan izan behar dutela parte, baina era eroso eta erakargarri batean. Teknologia berriei zein politika publikoak bultzatzeko eredu parte-hartzaile berriei ahalbidetzen digute hori. Kirol Azpiegituren Planarekin egin genuen parte-hartze prozesu zabal bat, non 200 herritarrek hartu zuten parte. Bide hori nahi dugu jarraitu herriarentzako tronkalak diren erabakietan herritarren ahotsa entzuteko eta elkarrekin lan egiteko.

Zerk egiten du herri bat bizigarri? Zer proposatzen duzue?

Herri bat egiten dute bizigarri, lehenik, herritarrek, euren goxotasunak eta harrera beroak; eta bigarrenik, herri egoki bat eskaintzeak, azpiegitura onak, aisia eskaintza zabalak... Bi ildo horiek zaindu nahi ditugu eta indartu. Elkarlanean.

MOTZ-MOTZEAN

Leku bat?

Arno Mendi inguruak

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Diskriminazioak, besteenganako errespeto faltak.

Zerk kentzen dizu loa?

Herritarren kezka edo arazoak konponbidea topatu ezinak.

Zein dira zure eguneroko poz txikiak?

Norbaiten arazoak edo kezkak konpondu izanak.

Zer dohai edo bertute duzula uste duzu? Eta, zer akats?

Lasaitasuna eta entzuten dakit, enpatikoa. Gehiegi eskatzen diot nire buruari.

Besteengandik zer baloratzen duzu gehien?

Errespetoa eta hurbiltasuna.

Liburu bat? Kantu bat? Film bat?

Kirolarekin zerikusia dutenak. *Loretzxo*, Benito Lertxundi. *Amama*.

Zerekin egiten duzu amets?

Gerrak, gatazkek eta beraiekin batera pobrezia desagertzearekin.

Nola begiratzen diozu zuk munduari?

Kezka handiz, gerrak, gaixotasunak, planetaren zainketa, asko daukagu hobetzeko.

Zertan zara pribilegiatu?

Dudan familia eta bizi naizen inguruak.





“Mendaroren interesak defendatzea beste motibaziorik ez duen alderdi bakarra gara”

ENETZ EZENARRO

EH Bilduren Mendaroko alkategaia

Enetz Ezenarro Arriola (Mendaro, 1977) EHUKo irakaslea aurkeztuko du EH Bilduk, bigarren aldiz jarraian, Mendaroko alkatetzarako hautagai gisa. Azkeneko lau urtean EH Bilduko zinegotzia eta Udal Taldeko bozeramailea izan da Mendaroko Udalean.

Bigarrenkoz aukeratu zaituzte alkatetzarako hautagai gisa. Zerk lotu zaitu baietza ematera?

Aurrekoan lotu ninduen gauza berak. "Zaindu maite duzun hori" dio Ruperren abestiak. Maite ditut Mendaro eta Mendaroko gauzak. Eta jendeak nahi badu, nire alea ipintzeko prest nago.

Zergatik eman beharko genizuke botoa?

Mendaroren interesak defendatzea beste motibaziorik ez duen alderdi bakarra garelako. 2019an EAJk baino %10 boto gehiago lortu zuen EH Bilduk Mendaron. EAJk eta PSEk EAE osorako egindako akordioari esker gobernatu du EAJk lau urte hauetan Mendaron. Eta akordio horrek mendaroarren interesekin inongo zerikusirik ez zuen. Guk hasieratik eskaini genion elkarlana EAJri, baina ez zuten onartu. Nahiago izan zuen alderdiaren interesak lehenetsiz PSEekin kromotrukean aritu. Beharrezkoa izan eta aritmetika elektoralak aukera eman ezker, ziur naiz EAJk eta PSEk berriz ere gauza bera egingo luketela.

Zeintzuk dira Mendarok dituen hiru gabezia handienak, eta, kontrara, zerk ezaugarritzen du?

Mendaroarren aspaldiko eskaera da bidegorria ekartzea. EAJk eta PSEk urte mordoak daramate Diputazioan agintzen eta Gipuzkoako Bidegorri Sarea 2022rako osatua egon behar zen Diputazioaren planen arabera; baina Elgoibartik Debarako zatia ere. Orain hor dabilta egingo dutela esan eta argazki ponpoxoak erakusten. Jakina, hauteskundeetan gaude. Etxebizitzaren inguruan, eta bereziki emantzipatu nahi duten gazteei begira, inongo politika edo planifikaziorik ez egotea ere oso kezkarria da. Lau urtean aldarrikatu dugu gai hau, baina ez digute kasurik egin. Azkenik uholdeek gurean sortzen dituzten kalteak minimizatzen neurriak hartzea ere premiazkoa da.

Jende asko bizi da afektatutako lekuetan. Kontrara, gauza on asko dauka. Bertako jendea, lehenbizi. Elkar hartutakoan elkarlaguntza eta herri-giro ederra sortzen da. Bigarrenik, natur ingurune paregabe bizi gara. Mendiak, errekek... itsasoa ere bertan daukagu. Zaindu beharreko altxor asko daukagu Mendaron. Eta azkenik, geografikoki ondo kokatuta gaude, beste herri eta hiriburuekin ondo komunikatuta eta historikoki gihar industrial handia erakutsi duen eskualdean.

'Euskalgintzan eta kulturgintzan krisian gaude', zioen Elgoibarren Jon Sarasuak, Euskararen Gogoetagea egitasmoaren koordinatzailea. Zer jauzi emateko prest zaudete? Zer beste proposatzen duzue euskalduntasunean sakontzeko eta mendaroarrak komunitate moduan ahalduntzeko?

Euskara gure izaeraren funtsezko ezaugarria da. Euskararik gabeko Mendarorik ez nuke ikusi nahi. Eta azken hamarkadetan asko egin da atzera. Kezkatzekoa da. Eta ekintzara pasatu behar dugu lehenbailehen, bai. Mendaro, EH Bilduren eskutik, UEMAn sartu zen orain urte batzuk. UEMako herrien eskarmentua eta babesba aprobetxatu nahi genituen egoerari buelta ematen laguntzeko. Baina UEMAn egote hutsak ez digu ezer konponduko. Mendaroko Udalak berak hartu behar du inizatiba. Lau urte hauetan ez dugu horrelakorik ikusi. Herriko taldeek borondaterik onenarekin egindako eskaerei erantzutera mugatu da kasurik onenean, eta zenbaitetan laguntza baino gehiago bidean trabak jarritz. Ezin dugu horrela jarraitu. Udalak Mendaron euskararen egoera iraultzeko prozesua lideratu behar du.

Zer eskaintza dakar zure alderdiak Mendaro herri abegikorragea egiteko?

Kultura-aniztasuna, elkarrenganako errespetua eta elkarren aitortza gure herriaren ikur eta jardun bihurtu nahi ditugu. Gure herrira datozenentzako harrera protokolo bat garatuko dugu, pertsona hauek eperik motzenez gure herrian integratzeko.

Gizartean, eta bereziki gazteen artean, erakundeen eta alderdi politikoaren aurkako sumindura, etsipena eta frustrazioa orokortu egin dira eta alderdietatik kanpo politika egiteko hautua zabaltzen ari da. Zer gogoeta egiten duzue honen inguruan?

Egia da jende asko, eta bereziki gazteak, politika instituzionalek oso urrunduta daudela. Arazo handi bat da. Izan ere politika, edo "gauza

publikoa”, jendartearentzako garrantzitsuegia baita beti besteen esku uzteko. Arrazoi desberdinak egon daitezke desafekzio horren atzean. Entxufismoa, ate birakariak, ustelkeria kasuak, politikara karrera egiteagatik sartzen direnak. Politikari batzuk interes pertsonala interes orokorraren gainetik jartzea, azken finean. Gu politika prestigiatzen ahaleginduko gara.

Egoera zaurgarrietan, haurrak eta adin nagusikoak dira ahaztuenak, ez direlako parametro produktibistetan txertatzen. Nola bideratuko zenukete haienganako kudeaketa publikoa direnak baino zaurgarriago izan ez daitezen?

Gure proposamena gizarte osoa inplikatzeko duen aldaketa kultural batean oinarritzen da. Funtsezkoa da zaurgarritasunaren eta interdependentziaren kontzeptuetatik abiatzea. Denon beharra da zaintzea eta zainduak izatea. Horregatik, lehenik eta behin, zaintza arazo publikoa dela onartu behar da, eta, beraz, irtenbide publikoak behar dituela. Beharrezkoa da diagnostiko bat egitea pertsona ahulenen eta zaintzaileen premiak ezagutzeko, eta, hortik abiatuta, ekintza-plan bat egitea.

Eskumen askok udal-eremua gainditzeko dutela kontuan hartuta ere, udal-eremutik gauza asko egin ditzakegu: nagusien bakardade-, mugikortasun- eta segurtasun-egoeren eta bazterketa-arriskuko egoeren mapa bat egitea, kontziliazioa, familia barruko erantzukidetasuna eta gizonek zaintza-lanetan inplikazio handiagoa izateko neurriak, udal-kontratazioetan plegu sozialak txertatzea, baliabide materialen banku bat sortzea, baliabide gutxiko adineko eta familientzako laguntza ekonomikoak higijene- eta osasun-produktuak erosteko, etab.

Nola definituko zenuke gazteekin duzun harremana? Zer duzue haiei eskaintzeko?

Gazteen gaia lehenetsuzkoa da. Gazteak dira Mendaroren etorkizuna eta ondo zaindu behar genituzke, Mendaron bizi izaten jarraitu dezaten eta Mendaroren garapenean lagundu dezaten. Hurrengo urteetan Mendaron etxebizitzak duen egoera sakon aztertu eta etxebizitzaren plan estrategikoa bat gauzatu nahi dugu, bereziki emantzipatzeko adinean dauden gazteak buruan. Horrez gain Gazteentzako Plan integral bat ere egin nahi dugu, ikasketak, lan mundua, aisialdia, kirola eta gazteen interesgune diren beste

arlotan, gazteekin elkarlanean, beren beharrei behingoz erantzuna emateko.

Ekonomiaren eta enpleguaren arloetan zertan sakonduko duzue?

Gai honek ere Udal esparrua gainditzeko du hein batean. Eskualdeko egoera ona bada, ona izango da, orokorrean, Mendarokoa ere. Debabarreneko motore ekonomikoa industria izan da aspalditik. Hala ere, azken hamarkadetan pata gabiltza. Legebiltzarrean Debabarreneko Ponentzia martxan jarri zenean eskualdeko EH Bilduk hausnarketa prozesua hasi zuen. Eta prozesu horretan oinarrituta eskualderako industria politika berri baterako proposamena egin dugu. Tokiko baliabideak globalki ustiatzeko datza estrategia. Hazkundean diren sektoreak identifikatu, industriarentzako zerbitzu aurreratuen arloa (IoT edo gauzen Internet, big data, ikusmen artifiziala, sensorika, robotika, adimen artifiziala) garatu eta formazio aurreratua eskaintzea leudeke estrategia honen bihotzean. Horretarako Debegesa indartu, Udalek esparru honetan duten inplikazio handitu eta bestelako eragileekin (Tekniker, Ideko, IMH, Eibarko Ingenieritza Eskola, Armeria Eskola...) elkarlana sustatuko dugu. Bestetik, Mendaroko komertzio eta ostalaritzaren suspertze planari ere garrantzia handia ematen diogu.

Zer ulertzen duzu bizitzak erdigunean jartzearekin? Zer proposatzen duzue?

Bizitzak erdigunean jartzeak esan nahi du gure zaurgarritasuna aitortzea; guztiok zaintzaileak eta zainduak izango garela onartzea. Premisa horretatik abiatuta, gure proposamenak ahaldundua eta hurbileneko politikan modu aktiboan parte hartzea eskatzen dio gizarteari, eta lehenetsuna ematen dio, aurrekontuei dagokienez, pertsona guztien gizarte-babesa eta ongizatea bermatzeko, ingurunea zaintzearen aldeko, kontsumo arduratsuen aldeko, kalitatezko zerbitzu publiko eta unibertsalen aldeko, laguntzarako sare komunitarioak sortzearen aldeko eta etxebizitzarako eskubidea eta kalitatezko hezkuntza defendatzearen aldeko neurriei.

Mendaron beste 5-6 aztarnategi egon daitezkeela esatea ez da disparatea zioen Alvaro Arrizabalaga EHUKo irakasleak. Zein neurri hartzea aurreikusten duzue ondare natural eta arkeologikoa babesteko?

Lur azpian daukagun altxorraz ohartu behar dugu. Gure luraren zati handi bat Izarraitz eta

Arnoko karstaren gainean dago. Leize eta kobazuloz beterik dago herria eta akuifero garrantzitsu bat eta hainbat aztarnategi arkeologiko dauzkagu. Ingurune pribilegiatu hau babestea ezinbestekoa da. Guk aztarnategi arkeologikoen babesaren karstaren babesarekin lotzen dugu. Amaitzean den agintaldian hasieratik jarri dugu mahai gainean gai hau eta ez dute ezer egin nahi izan. Mendaro Euskal Kostaldeko Geoparkean sartzea proposatu dugu, Leizarperen eskaera geure eginez. Horrek baliabideak emango lizkiguke babesteko asmo horretan aurrera egiteko. Gainera bada herrian Leizarperekin batera gai hau asko landu duen talde bat. Jende horrekin elkarlana bultzatu nahi genuke.

Nola ulertzen duzu herritarren parte-hartzea? Nola egingo duzue jendeak herritar aktiboaren rola har dezan?

Tokiko politika lankidetzazko demokrazia gisa ulertzen dugu, gobernatuak hautatuak izan direnek gobernatzen uztearen ideia tradizionala gainditzen duena. Hori baita daukaguna: bozkatu, ordezkariak aukeratu eta lau urterako txekoa eman diezula dirudi, epe hori igaro arte ezin baituzu berreskuratu. Eredu honen bidez politika "jendearentzako baina jendea kontuan hartu gabe" egiteko arriskua dago. Igogailuaren kasua da adibidea: onartezina da 2 milioi euroko proiektu bat, inolako eztabaida publiko eta jendearen parte-hartzerik gabe, bulego batean onartzea. Parte-hartzea sustatzeko herritarren ahalduntzea sustatu behar da eta boterea partekatu. Horretarako, funtsezkoa da udal-gobernua jendearentzako hurbilekoa, irekia eta gardena izatea.

Zerk egiten du herria bizigarri? Zer proposatzen duzue?

Jendea ondo eta pozik bizitzea da helburua. Politikan gabiltzanoi badagokigu herritarrek ondo bizitzeko baldintza materialak guztiei bermatzea, eta ez da gutxi. Demokrazian sakontzea garrantzitsua da. Gai publikoen inguruko gardentasuna eta jendearen parte-hartzea sustatzea. Guztiak komunitatearen parte eta eragile garrantzitsu sentitzea. Interes orokorra defendatzea eta ez interes pribatua. Ongizatearen oinarrian dauden egiturak indartzea: osasuna, zaintza, enplegua, babes soziala, etxebizitza, segurtasuna, hezkuntza eta kultura. Eta gure identitate komunitarioa sendotzea. Mendaroren eskalan guzti horrek esan nahi duena martxan jartzten saiatuko gara.

MOTZ-MOTZEAN

Leku bat?

Mendaro, orokorrean, eta tren geltokiaren inguruak, gehiago konkretatzea eskatu ezker. Inguru horretan hazi ginen. Badakizu, haurtzaroa ei da, batez ere, gizakion aberria.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Aberatsen eta boteretsuen aseezinak.

Zerk kentzen dizu loa?

Gerrak.

Zein dira zure eguneroko poz txikiak?

Seme-alaben kontuekin pozik ibiltzen naiz.

Zer dohai edo bertute duzula uste duzu? Eta, zer akats?

Saiatua naiz interesatzen zaidan horretan. Ez dut berehalakoan etsitzen. Burugogorra ere bai, batzutan.

Besteengandik zer baloratzen duzu gehien?

Zintzotasuna. Umore ona.

Liburu bat? Kantu bat? Film bat?

Steinbecken *Saguak eta Gizonak* liburua, adibidez. Tatxers talde nafarraren *Goizean oskorri* abestia, esaterako. *Ciudad de Diós*, film brasildarra, bat esateagatik.

Zerekin egiten duzu amets?

Euskal Herri euskaldun batekin.

Nola begiratzen diozu zuk munduari?

Esperantzaz. Askotan kostatu egiten zaidan arren.

Zertan zara pribilegiatu?

Jaio naizen tokian jaio izana pribilegiotzat daukat.





“Erronka potoloak gerorako lagatzen dira Mendaron eta anbizio falta somatzen dut”

MARI JOSE TELLERIA

PSE-EEren Mendaroko alkategaia

PSE-EEren zinegotzia izan da Mari Jose Telleria Mendaron (Eibar, 1971) azkeneko lau urteotan eta Gipuzkoako Kultura diputatua ere bada. Bigarrenegoz aurkezten da Mendaron PSE-EEtik alkate izateko.

Bigarrenegoz aukeratu zaituzte alkatetzarako hautagai izateko. Zerk lotu zaitu oraingoan baietza ematera?

Ez didate eskatu beharrik izan. Oso gustura aritu naiz urte hauetan eta jarraitzeko gogoia daukat.

Zergatik eman beharko genizuke botoa?

Udalak betikoa eta betiko moduan egiten ez jarraitzeko. Erakundeetan eta bizitzan, zenbat eta ikuspegi zabalagoa eta askotarikoagoa izan, hobe. Beste bi alderdiak elkarren kontra ari dira etengabe eta PSE-EEK egoera horri aurre egin nahi dio.

Zeintzuk dira Mendarok dituen hiru gabezia handienak, eta, kontrara, zerk ezaugarritzen du?

Nire ustez, Mendarok ez du bere burua behar beste ezagutzera ematen, erronka potoloak gerorako lagatzen dira eta anbizio falta somatzen dut. Kontrara, duen tamainagatik erraza izan beharko litzateke Udalaren, bestelako eragileen eta herritarren artean proiektuak lantzea eta aurrera eramatea; inguru natural oso ederra ere badauka eta hobeto aprobetxatu ahal diren baliabide garrantzitsuak ere bai eskura; hala nola, hondartza, ospitalea, industria...

'Euskalgintzan eta kulturagintzan krisian gaude', zioen Elgoibarren Jon Sarasuak, Euskararen Gogoetagea egitasmoaren koordinatzaileak Elgoibarren. Sarasuak zioen ez dauzkagula beste hamar urte despistatuta egoteko. Zer jauzi emateko prest zaudete? Zer beste proposatzen duzue euskalduntasunean sakontzeko eta mendarorarrak komunitate moduan ahalduntzeko?

Oso ondare material zein ez-material garrantzitsua dauka Mendarok eta baliabide garrantzitsua izan daiteke belaunaldien arteko

harremanak sustatzeko, bizilagun berriak erakartzeko, enpresa ekimenak sortzeko eta herria indartzeko. Bestetik, dagoena zaintzea ezinbestekoa da: Arno Guraso Elkarte, kirol taldeak, dendak eta tabernak, tailerrak... Palanka bihurtu eta hortik abiatu beharra dago gehiago egiteko, gehiago izateko.

Zer eskaintza dakar zure alderdiak Mendaro herri abegikorragoa egiteko?

Batetik duen ondarea partekatu nahi dugu. Esparru horretan, esaterako, lurralde mailan kultura egitasmo ugari antolatzen dira eta Mendarok ez du sekula parte hartzen. Arkeologiari lotuta ere badago zer eskaini eta etxekoek ere ez dute ezagutzen. Zergatik ez Geoparkearekin harremanak sustatu?

Eta ospitalea ere hor dago. Ehundaka lagunek bisitatzen dute egunero eta batzuek egunak ere pasatu behar izaten dituzte bertan, baina fluxu hori ez da inoiz kontuan hartu. Orain igogailua ere badagoela, herrian dauden denden, tabernen eta bestelako zerbitzuen berri emateko kartelak jartzea behin baino gehiagotan eskatu dugu eta horrekin batera kanpainaren bat antolatzea ere interesagarria litzateke.

Herrirako sarrera ere gehiago zaindu beharra ikusten dugu. PSE-EEK proposatuta, Aitor Etxeberriaren eskultura jarri zen biribilgunean eta Azpilgoeta aldean dagoen harresia garbitu, argitu eta apainduko genuke. Zubiaren beste aldeko aparkalekua, herriko sarrerakoa, hobeto antolatu behar da plaza txiki bat sortuta; autobuserako aterpea txukuntzea eta hobeto kokatzea ere nahi dugu.

Gizartean, eta bereziki gazteen artean, erakundeen eta alderdi politikoaren aurkako sumindura, etsipena eta frustrazioa orokortu egin direla diote azken ikerketek eta alderdietatik kanpo politika egiteko

"Udalak betikoa eta betiko moduan egiten ez jarraitzeko eman beharko ligukete botoa herritarrek"

hautua zabaltzen ari dela. Zer gogoeta egiten duzue honen inguruan?

Gero eta individualistagoak gara eta ohiko egitura guztiak zalantzan daude. Alderdi politikoak zalantzarik gabe, baina baita familia, eliza, eskola eta auzo elkarteak ere. Alde horretatik eta demokrazian bizitzen jarraitu nahi badugu, ongietorriak izan daitezela politika egiteko modu guztiak, askatasunean eta justizian oinarrituta baldin badaude.

Pandemiak erakutsi du egoera zaurgarrietan haurrak eta adin nagusikoak direla ahaztuenak, ez direlako parametro produktibistetan txertatzen. Nola bideratuko zenukete haienganako kudeaketa publikoak direnak baino zaurgarriago izan ez daitezen?

Batetik, beharra duten familientzako laguntzak ziurtatzea ezinbestekoa da. Egoera zaurgarrian dauden mendaroei laguntzeko hasierako aurrekontu partidetan ezarritakoaz gain, baliabide gehiago egotea defendatu genuen PSE-EEtik eta horrela egin izan da legegaldian zehar. Bestetik, kontziliazioaren aldeko politikak indartzea eta zabaltzea ezinbestekoa da haur eta nagusiak nahi eta behar bezala zaindu ahal izateko, zaintzaileak ondo zainduz eta emakumezkoen (gehien bat) ibilbide profesionala urratu barik.

Nola definituko zenuke gazteekin duzuen harremana? Zer duzue haiei eskaintzeko?

Gazteak gure maisu-maistrarik onenak dira; dena dakigula uste dugu helduok eta oso oker gabilta. Galdetu, entzun, hurbildu, saiatu... Hortik abiatu beharko litzateke Udala beti, eta are gehiago gazteei zuzendutako ekimenak martxan jartzean. Orain dela bi urte PSE-EEK aurrekontuetan eginiko zuzenketa bati esker, gazte plana lantzeari ekin zitzaion, baina laster geratu zen ekimena bertan behera. Lana gazteen ikuspegitik, errealitatearen diagnostikotik, abiatuko genuke guk, eta ondoren, proiektuak, zerbitzuak eta programak elkarrekin lantzen jarraitzeko sistema martxan jarri beharko litzateke. Zergatik ez Gazte Kontseilu bat Mendaron?

Ekonomiaren eta enpleguaren arloetan zertan sakonduko duzue?

Kontrataziorako dirulaguntzak martxan

"Proiektuak eta ekimenak batzeko erabili behar dira, eta ez kontrajartzeko; edozein dela ideia eta edozeinek aurkeztutakoa dela ere, partekatze eta hobetzeko arduraren dena dela ulertzea beharrezkoa da"

jartzeko partida badago aurrekontuetan, alderdi sozialistak eginiko zuzenketa bati esker, baina oraindik ez dira behin betiko oinarriak onartu, nahiz eta behin baino gehiagotan eskatu dugun batzordetan puntu hori deialdian jasotzea.

Edozein modutan, guk ahalegin berezia egingo genuke dendari eta bestelako enpresetako elkarteak sustatzen. Kanpainak martxan jartzeko, ekimen berriak bideratzen laguntzeko, dirulaguntza publikoetako tramitazioa azkartzeko... garrantzitsua da taldean aritzea; baina bestelako politika batzuk sustatzeko ere, hala nola euskararen erabilera, berdintasun planak, gazteen emantzipaziorako estrategiak..., foro edota guneak eratu behar dira. Mendaron egingo denaren kalitatea eta kantitatea bermatuko dutelakoan gaude.

Bizitzak erdigun jarri behar direla babestu duzue. Zer ulertzen duzu bizitzak erdigun jartzearekin? Zein da zure taldeak proposatzen duen eredu?

Inor atzean ez lagatzean datza bizitzak erdigun jartzea, berdintasun eta justizia soziala izatean gainontzeko politika guztietako oinarri eta ardatz. Horrekin batera, eta hau ikuspegi pertsonalagoa bada ere, proiektuak eta ekimenak batzeko erabili behar dira, eta ez kontrajartzeko; hau da, edozein dela ideia eta edozeinek aurkeztutakoa dela ere, partekatze eta hobetzeko arduraren dena dela ulertzea eta sentitzea beharrezkoa da.

Mendaron beste 5-6 aztarnartegi egon daitezkeela esatea ez da disparatea zioen Alvaro Arrizabalaga EHUKo irakasleak. Zein neurri hartzea aurreikusten duzu ondare natural eta arkeologikoa babesteko?

Dagoena ezagutzea eta ezagutzera ematea. Nekez ahal da ezagutu, aurrez ez dena babestu

eta zabaldu. Eta guretzat, babestea interes publikoari lehentasuna ematean datza, eta epe motz-ertaineko ikuspegi batekin planifikatzean; ezin da batzuek epe motzean duten interes ekonomikoak kontuan hartuta bakarrik arautu eta kudeatu. Udalak azterketa sendo bat egin behar du, eta informazio horrekin planifikatu eta kudeatu, belaunaldi gazteak eta denon ongizatea helburu dituela.

Herritarren parte-hartzea sustatzeko asmoak alderdi guztien programetan jasotzen dira urtero. Nola ulertzen duzu herritarren parte-hartzea? Nola egin asmo duzue jendeak herritar parte-hartze aktiboaren rola har dezan?

Herritarren parte-hartzea sustatzea elkarriketa kanalak zabalik mantentzea da funtsean. Galdetu, entzun, proposatu, kritikak jaso, aztertu... eta bakoitzaren tokia eta ardura ezberdinak direla kontuan hartuta, erabakiak hartu, gardentasunez eta interes orokorraren alde beti. Auzo bilerak, kontseiluak, buzoiak, aurrekontu parte-hartzaileak, aurkezpenak... Dena asmatuta dago, eta martxan jartzeko borondatea eta esperientzia ere badugu PSE-EEen.

Zerk egiten du herri bat bizigarri? Zer proposatzen duzue?

Iazko aurrekontuetan Plan Orokorra berrikusteko partida bat egotea eskatu genuen zuzenketa baten bitartez eta diagnostikoa egiteko konpromisoa hartu zuen Udal Gobernuak, baina ez da aurrerapausorik eman. Hastear dagoen legegaldian dokumentu hori eguneratzeko baliabideak ezarri beharko dira, eta prozesu horretan, esparru eta arlo ezberdinetako ahotsak eta ikuspegiak jasotzea ezinbestekoa izango da Mendaroko eta mendarotarren bizi-kalitatea hobetzeko. Halako helburu bat lortzeko ezin gara ideiak eta proposamen solteak lantzearekin konformatu, borondatea eta koherentzia bermatuko dugu.

"Herritarren parte-hartzea sustatzea elkarriketa kanalak zabalik mantentzea da funtsean: galdetu, entzun, proposatu, kritikak jaso, entzun..."

MOTZ-MOTZEAN

Leku bat?

Arrate.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gezurrak.

Zerk kentzen dizu loa?

Gezurren bat esan izanak.

Zein dira zure eguneroko poz txikiak?

Asko dira. Oso kontuan daukat zein zorionekoa naizen.

Zer dohai edo bertute duzula uste duzu? Eta, zer akats?

Besteen lekuan jartzea aipatuko nuke dohaitetan, eta akatsetan inpultsiboa naizela.

Besteengandik zer baloratzen duzu gehien?

Zintzotasuna.

Liburu bat?

García Marquezen *Cien años de soledad*.

Zerekin egiten duzu amets?

Lotan nagoela, ez dakit. Esna, justizia sozialarekin.

Nola begiratzen diozu zuk munduari?

Egitekoa naiz, begiratzen geratzekoa baino gehiago.

Zertan zara pribilegiatu?

Familia zoragarria daukat eta lan egitea maite dut.



Elgoibarko institutuko Korrikazlagundu taldea izan da 'Kaixomundua.eus' lehiaketako irabazleetako bat



PuntuEus Fundazioak antolatzen duen *Kaixomundua.eus* lehiaketaren IV. edizioko irabazleak jakinarazi dituzte, eta irabazleen artean dago IES Elgoibar BHI ikastetxeko Korrikazlagundu taldea. Jakes Goikoetxea Arizmendik, Ibai Aranbarri Arriolak eta Ander Bizkarguenaga Gomezek osatzen dute Elgoibarko taldea, eta Alazne Ugarteburu da beraien tutorea. Eskola-komunitateari begira sortutako proiektua da *Kaixomundua.eus* eta webguneak sortzen ikasiz, gaitasun digitalen ezagutza

sustatzeko eta eduki digitalak euskaraz sortzeko sortu zuten, bai eta trebakuntza teknologikoa behar duten irakasleen prestakuntza indartzeko ere. Laugarren edizio honetan Euskal Herriko 36 ikastetxetako 1.218 ikasle aurkeztu dira lehiaketara, 402 taldetan banatuta, eta parte-hartzea orain arteko handiena izan da.

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolan izena emateko epea, zabalik

Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolan izena emateko epea maiatzaren 31n amaituko da. Aurten ikasle izan direnen matrikulazioa automatikoki egingo dute, aurten izena emanda egon den ikasgai guztietan, eta datorren ikasturtera begira aldaketaren bat

egin nahi duenak musika eskolan jakinarazi beharko du, elgoibarmusika@elgoibarmusika.eus helbidean edo 943 742 145 / 628 929 055 telefonoetan. Musikan estreinakoz hasiko direnek musika eskolako idazkaritzara jo behar dute, 15:00etatik 21:00etara bitartean.

Aita Agirreko kultur kafearen kudeaketa lizitaziora atera du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak Aita Agirreko Kultur Kafea kudeatzeko lizitazio berria argitaratu du, eta interesatuek maiatzaren 22ra arteko epea dute proiektuak aurkezteko. Proposamenak www.elgoibar.eus atariko Kontratatzaillearen Profila atalean aurkeztu behar dira.

Kultur Kafearen azken lizitaziotik bi urte pasatu dira, eta uztailean amaituko da egungo kontratua. Lizitazio berria ere bi urterako atera dute, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin. Urteko lizitazio-tasa minimoa 2.400 eurokoa da, BEZik gabe. Esleipendunak zerbitzuaren ohiko funtzionamendurako behar dituen produktuak eta artikulua erosi eta saltzeaz arduratu beharko du, eta taberna baten berezko

zerbitzuak eman ahal izango ditu. Internet, telefonia, argia, gasa, ura eta abarren gastuak esleipendunak ordainduko ditu. Horrez gain, hilean kontzertu bat eta bestelako ikuskizun/ikastaro/tailler/kultura-jardueraren bat antolatu beharko ditu gutxienez, eta euskara irizpideak bete beharko ditu.

Ordutegia honakoa izango da: • Astelehenetik ostegunera: 07:00etatik 09:00etara ireki, eta 22:00etan itxi.

■ Barku eta zapatuetan: 07:00etatik 09:00etara ireki, eta 01:30ean itxi.

■ Domeka eta jaiegunetan: 09:00etatik 11:00etara ireki, eta 22:00etan, itxi.

197 lan aurkeztu dituzte idazlan lehiaketara eta horietatik 26 saritu dituzte



Elgoibarko Udalak, Kultura, Euskara, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailen bitartez antolaturiko VI. Idazlan lehiaketara, 197 lan aurkeztu dituzte, eta horietako 26 saritu dituzte. Lehiaketaren helburua ikasleen artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzea izan da, eta epaimahaikoen hitzetan, aurtengo edizioan azpimarratzekoa izan da parte-hartzea, inoiz baino lan gehiago aurkeztu direlako, bereziki, DBHn eta Batxilergoan. Lanen kopuruaz gain, lanen kalitatearekin ere pozik agertu dira

epaimahaiko kideak. Jasone Osorok, Jon Eugik eta Iñigo Otañok osatu dute epaimahaia. Sari banaketa ekitaldia eguaztenean egin zuten eta bertan, Bota Literak! taldeko hainbat kidek testu batzuk irakurri zituzten. Jasone Osorok gidatzen du taldea eta aretoan bildutako gazteei gonbitea egin zien taldera batzeko. Bariku arratsaldetan biltzen dira, Aita Agirreko areto nagusian 17:00etatik aurrera.

Saridunen eta aipamen berezia jaso dutenen zerrenda barren.eus webgunean aurkituko duzue.

Trinitateetako danborradak badauka kartela

Atabal elkarteak Trinitate jaietako danborrada iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du, eta dagoeneko jakinarazi dute irabazlea: Nagore Cancio del Pino. Aurten hiru lan aurkeztu dituzte lehiaketara. Irabazleak 300 euroko erosketa bonoa jaso du, Elgoibarko dendetan gastatzeko.

Trinitate jaiak ekaineko lehen asteburuan ospatuko dira, eta Nagusien Danborrada ekainaren 3an izango da, 23:00etan. Kalegoen Plazan hasi eta herria zeharkatuko dute.



Udako Euskal Unibertsitaterako dirulaguntzak emango ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak dirulaguntzak emango dizkie Udako Euskal Unibertsitateak, Eibarko, Iruñeko eta Gasteizko egoitzetan, ekaina eta uztaila bitartean, eskainiko dituen ikastaroak bertatik bertara edo on-line egiten dituzten herritarrei. Dagoeneko irekita dago matrikulazio epea, eta interesatuek UEUren www.ueu.eus atarian edo UEUren bulegoetan (Bilbo, Eibar, Iruñea) eman dezakete izena.

Udalak UEUK antolaturiko ikastaroen matrikula osoa ordaintzeko dirulaguntzak emango dizkie Elgoibarren errolatuta dauden herritarrei, langabetu, ikasle, pentsiodun eta erretiratuei. Lanean dihardutenei, berriz, matrikularen erdia ordainduko die. Kasu guztietan, ikastaro bakoitzeko, gehienez ere, 150 euro emango du. Dirulaguntzari buruzko informazio gehiagorako: Euskara Saila. 943 744 366 / euskara@elgoibar.eus.

BEATRIZ GARCIA

Musika Hizkuntza eta
Hezkuntzaren Pedagogian lizentziaduna

✍️ Ainara Argoitia

Musika Hizkuntza eta Hezkuntzaren Pedagogian lizentziaduna eta Musika Hizkuntza Goiztiarreko espezialista da Beatriz Garcia Rodriguez eta maiatzaren 19an 'Umea hazi, musika biziz' izenburuko hitzaldia emango du Mendaron, 4 eta 7 urte bitarteko haurren gurasoentzat. Musikenen egin zituen goi mailako ikasketak Garciak eta G.B Martini Boloniako goi-mailako kontserbatorioan sakondu zituen. Hitzaldia Ameikutz musika eskolak antolatu du, Udalaren babesarekin, eta udaletxeko udalbatza aretoan izango da, 18:00etan hasita. Bestalde, Ameikutz musika eskolatik jakinarazi dute gaur ikasle direnek zabalik dutela matrikula egiteko epea [hilaren 15a da azken eguna], eta datorren astean zabalduko dutela ikasle berriak matrikulatzeko epea.



■ ■ Umeen garapen integrala lortzeko erreminta ezin hobea da musika ■ ■

'Umea hazi, musika biziz' izenburuko hitzaldia emango duzu. Zer mezurekin zatotz?

Burmuinaren garapena azalduz hasi ohi dut hitzaldia, gustatzen zaidalako erakustea anatomikoki nola aldatzen den lehenengo urteetan, ikaragarri hazten baita garuna lehenengo bi urtean. Hitz egingo dut baita ere mielinizazio prozesuaz, neuronen arteko konexioak izugarri (%80) azkartzen direlako lehenengo sei urteetan. Horri esker ikasteko gaitasuna handia da adin goiztiarretan eta horregatik esan ohi dugu esponjak bezala direla. Hitz egingo dut baita ere garun plastikotasunari buruz, haurrek zailtasunetara egokitzeke duten gaitasunaz. Autoreek azpimarratzen dute, baina, gaitasun horiek garatzeko ezinbestekoa dela haurrei estimulu aproposak eskaintzea, eta esaten dute baita ere, adin kritiko horietan egiten ez dutena gerora egitea askoz gehiago kostatuko zaiela. Anatomikoki gure garunak izaten duen aldaketa azaldu ostean sartu ohi naiz haurren garapen

kognitiboa, psikomotorea, eta nortasunaren garapena azaltzen. Eta horiek denak esanda, saiatuko naiz azaltzen musika zein erreminta ona den umearen garapen integral hori bideratzeko.

Zeintzuk dira musikaren onurak adin goiztiarretan? Zer landuko du musika tailerlean izena ematen duenak?

Asko eta askotarikoak dira, baina hamarren batera ekarrita dauzkat: musikak laguntzen dio haurrari bere adinkideekin sozializatzen, taldean integratzen. Lagungarri da, baita ere, arauak barnertatzeko. Adin tarte honetako haurrak oso inpulsiboak dira, gero eta gehiago gainera oso ohituta daudelako estimulu askotara eta dena azkar jasotzera, azkarrago bizi garelako denok ere, eta musikak laguntzen du inpultso horiek kontrolatzen ikasten, pazientzia izaten eta inpulsiboegiak izategatik taldean sor daitezkeen arazoei konponbideak bilatzen. Nortasuna garatzen laguntzeko ere erreminta ona

da musika, emozioak lantzen eta autokontzeptu eta autoestima positiboak osatzen laguntzen duen heinean. Izan ere, haurrak bere buruaz duen bisioa beti ez da erreala izaten. Gertatzen da haurrari eskolatik irten berritan zer moduz portatu den galdetzea adibidez, eta hark gaiztoa izan dela erantzutea, egun horretan behar ez duen zerbait egin duelako. Eta haurra ez da gaiztoa, gaiztakeriaren bat egiteagatik.

Psimotrizitatea lantzeko ere oso lagungarri da musika. Gorputzaren kontrola bereganatzea, espazioan kokatzen ikastea, lateralitatea, oreka, koordinazioa, disoziazioa, arnasketaren kontrola, erlaxazioa eta psikomotritate arina eta lodia ere landuko ditugu besteak beste musika tailerrean, eta erabiliko dugu musika, baita ere, atentzioa eta kontzentrazioa lantzeko. Memoria lantzeko ere aproposa da musika eta memoriak ari garenean, memoria klase guztiak aipatu behar ditugu: ikusizko memoria, entzumen memoria, erritmikoa, taktila, analitikoa, emozio-memoria edo musika oroitzapenekin lotzen duena, espaziala, gorputz-memoria... Memoriarena mundu bat da.

Aldi berean, sentsibilitate artistikoa eta sormena lantzeko ere erreminta lagungarria da musika, eta baliatuko dugu. Baliatuko dugu, baita ere, gaitasun musikalean trebatzeko.

Zein izango da musika tailer honen helburu nagusia?

Musika maitatzeko eta gozatzeko gogoia piztea haurrengan, eta umeen garapen integrala lortzea, musikaren bidez. Hau da, gaitasun kognitiboak, psikomotoreak eta sozio-afektiboak lantzea. Gaitasun musikal batzuk ere garatuko ditugu, hala nola, gaitasun erritmiko-psikomotoreak; ahotsaren, entzumenaren eta musika tresnen bidez sustatzen diren gaitasun musikalak, eta imitazioa, interpretazioa eta inprobisazioaren bidez lortzen direnak. Era berean, umearen sentsibilitate artistikoa eta sormen gaitasuna ere sustatuko ditugu musika tailerrean, eta aukera izango dute garai eta estilo ezberdineko musika esperientziez taldean gozatzeko. Horretarako, kantua, mugimendua, dantza, audizioak eta instrumentuak baliatuko ditugu.

Klase ordu baten egitura zein da? Zeintzuk baliabide erabiltzen dituzu?

45 minutuko saioak izango dira tailerrekoak, eta ondorengo egitura izango dute. 4 urtekoekin

"Musika maitatzeko eta gozatzeko gogoia piztu nahiko genuke haurrengan eta haien garapen integralean lagundu"

ongi-etorri abestia kantatuz hasi ohi dut saioa, ahots gaitasunak lantzeko. 5 urtetik aurrerakoetan ez dut halakorik egiten, haiek nagusi sentitzen direlako eta umeagoen kontua iruditzen zaielako hori. Ondoren kantu bat abestu ohi dugu. Mila gauza lantzeko kantuak dauzkagu. Gero, kantu bat aukeratzen dugu instrumentuekin jotzeko, alde erritmikoa lantzeko; izan daiteke sortutako musikograma baten bidez edo guk geuk taldean sortutako baten bidez. Ondoren, audizioa jartzen diet, entzumen aktiboa, erritmoa eta musikaren forma ezberdinak lantzeko. Saiatzen naiz beti estilo eta garai ezberdineko musika jartzen. Audizioa mugimenduekin uztartzen dut beti, adin hauetan ezer egin gabe zerbait entzuten egotea zaila egiten zaielako. Umeek mugimendua behar dute eta interesgarriena ere horixe da mugimenduaren bidez adieraztea musikak gudan eragiten duena. Dantzak, beraz, derrigor izan behar du lekua musika tailerrean. Horrek ez du esan nahi momentu lasaia izango ez ditugunik, jakina. Izango ditugu horiek ere, baina garai batean baino gehiago kostatzen zaigu gaur egun lasai, isilik eta geldi egotea, eta hori pixkanaka landuko dugu umearekin uneoro konexio afektiboa landuz. Konprobatuta daukat lasaitasun uneak luzeagoak izan daitezkeela umearekin afektiboki konektatzea lortuz gero.

Iruditzen zaizu musikari duen garrantzia aitortzen zaiola gaur egun?

Ez. Iruditzen zait jendeak ez diola musikari denborarik eskaintzen, ez eta duen garrantzia aitortzen ere. Ahaztu egiten dugu, adibidez, musika beste hizkuntza bat dela eta beste edozein hizkuntza ikasteko egin behar den bezala, hemen ere ahalegina egitea eskatzen dela eta horrek konstantea izatea ere eskatzen duela.

Zergatik joan beharko lukete guraso direnek hitzaldira? Nola animatuko zenituzke?

Esango nieke aukera izango dutela ikuspuntu zabal batetik musikaren onurak ezagutzeko, eta gaur hemen azaletik aipatu ditugun kontuetan sakontzeko ■

Mendi lasterketa motz zein luzeetan lehiatu ziren asteburuan Astigarraga taldeko saltakariak

Casa Astigarraga trail taldeko kideak bete-betean murgilduta daude mendi lasterketen denboraldian. Joan den asteburuan esaterako, ultra distantziako zein kilometro bertikaleko probetan hartu zuten parte taldeko ordezkariak. Azpeitian batu zen ordezkari-tza zabalena, Domusa Teknik 40 MLK mendi lasterketaren bigarren edizioan parte hartzeko. 500 korrikalarik baino gehiagok hartu zuten parte 65 kilometroko ibilbidea zuen proban, tartean hamar elgoibartarrek. Jose Luis Diez *Txelu* eta Pilar Arriola izan zen hamar horietan azkarrenak. Euskal Herriko Koparako puntuagarria den Kanpezu Ioar mendi maratoi erdian ere hartu zuten parte taldeko korrikalari gaztetxoek. Julen Dobarrok lehen postua eskuratu zuen kadeteetan eta Eneko Etxanizek bigarrenkoa jubeniletan. Alex Berguak laugarren egin zuen jubeniletan. Azkenik kilometro bertikalen Euskal Herriko Txapelketan, Txindokiko Kilometro Bertikalean, lehiatu ziren Astigarraga taldeko kideak. Ainhoa Lendinezek laugarren postua eskuratu du lasterketa bertikalen Euskadiko Txapelketan. (informazio gehiago: barren.eus)



Mailaz igotzeko azken aukera, etxean

Modelos Modelberri saskibaloia taldeak Gipuzkoako Hirugarren Mailako finalerdietako partida jokatu zuen domekan, Olaizagan. Elgoibartarrek 55-81 galdu zuten Tolosako Take Coach taldearen aurka partida bakarrera jokatu zuten kanporaketa, eta hortaz ezin izango dute finala jokatu. Halere, mailaz igotzeko azken aukera bat izango dute. Horretarako, beste finalerdietako galtzaileari, Andoaino Xurrut taldeari, irabazi beharko diote. Olaizaga kirolegian jokatuko dute partida hori, zapatuan, 17:00etan.

Eskubaloia ezagutzeko entrenamendu irekiak antolatu ditu Sanlok

Eskubaloia ezagutu eta probatu nahi dutenentzako jardunaldiak antolatuko ditu Sanlo Eskubaloia Kirol Taldeak maiatzerako eta ekainerako. 2009tik 2014ra bitartean jaiotako neska-mutilentzako entrenamendu saio irekiak eskainiko ditu, debalde. Taldetik jakitera eman dutenez, abiadura, indarra, trebetasuna eta estrategia uztartzen dituen kirol "zirrargarria" da eskubaloia. "Haurrek baloia jaurtitzen, harrapatzen eta driblatzen ikas dezakete, dibertitzen eta lagun berriak egiten dituzten bitartean. Gainera,

eskubaloia taldeko lana eta lankidetzaren sustatzeko eta lidergo zein komunikazio-trebetasunak garatzeko modu bikaina da. Zure seme-alabentzako jarduerak dibertigarri eta osasungarri bat bilatzen duzu? Nahi duzu zure seme-alaba aktibo mantentzea, beren trebetasun sozialak garatzea eta trebetasun berriak ikastea? Orduan eskubaloia da erantzuna!". Entrenamenduen ordutegia sanlo.net webgunean. Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 688 735 446 telefono zenbakira edo idatzi sanlolatxo@gmail.com helbidera.

Mailaz igo izana zaleekin ospatu du C.D. Elgoibarreko emakumeen talde nagusiak



Erregional mailatik Ohorezko Mailara igo da duela lau urte sortu zuten C.D. Elgoibarreko emakumeen senior taldea, eta zapatu gauean zaleekin batera ospatu zuten mailaz igo izana, Maalako parkean. Igoera faseko partida jokatu zuten lehenik, Mintxetan, Orioko futbol taldearen aurka eta 3-2 gailendu ziren elgoibartarrak. Partidaren ostean, Maalako parkera jaitsi ziren jokalariaik, mailaz igo izana ospatzeko ekitaldia antolatu baitzuen klubak, 21:30ean. Taldekideak eta entrenatzaileak banan-banan

igo ziren eszenatoki gainera, eta Ion Gurrutxaga kazetariak eginiko zenbait galdera ere erantzun zituzten hiru taldekidek (bideoa barren.eus webgunean). Igoera faseko azken partida jokatzea gelditzen zaie orain. Antiguoko taldearen kontra lehiatuko dira, Donostian, maiatzaren 14an. Galdu ala irabazi, ziurtatuta dute igoera faseko euren multzoko lehen postua, eta hortaz, igoera faseko beste multzoan lehen postua lortzen duen taldearen aurka jokatuko dute Erregional mailako txapelduna zein den erabakiko duen finala.

📷 Joserra Cabrera





Eskubaloiak eta musikak bat egin dute Iker Izeta Sanloko jokalariaren agurrean

Hamazortzi urte egin ditu Sanlo kirol taldean Iker Izetak, baina eskubaloitik erretiroa hartzea erabaki du. Alcora Forging Group taldeak etxeko azken partida jokatu zuen aurreko zapatuan Olaizagan, eta taldekideek eta klubak Izeta omentzeko baliatu zuten neurketa. Eta, Mauxitxa txarangakoak ere azaldu ziren agur omenaldira, txarangako kidea ere bada eta Izeta. Beroketa saiok amaitu ostean, aldageletan sartu ziren Alcortako jokalaria eta entrenatzaileak eta handik kamiseta bereziak jantzita irten ziren denak, atzealdean *Izeta* idatzita zutela. Orduan hasi da taldekidearentzat

prestatuta zuten ezusteko omenaldia. Bi taldeetako jokalariek ohorezko pasilloa egin zioten Izetari, eta oroigarriak eta Sanloren aitortza jaso zituen honek kantxaren erdian. Bere argazkiz osatutako koadroa eta txapela jaso zituen. Harmailak beteta zirela hasi zen gero Romo Broker talde bizkaitarraren aurkako partida, eta minutu gutxi zeramatzatenean txaranga doinuak hasi ziren entzuten. Orduantxe sartu ziren atetik Mauxitxakoak, partidari eta Izetaren agurrari ukitu berezia emateko. Alcortakoek egin zuten partida ere nabarmendu behar da, maila galdua izan arren, dena ematera irten baitziren eta

77 lagunek jasoko dituzte dominak Morkaikoren Egunean



Morkaikoren Eguna egingo dute bihar, hamaikagarrenegoz. Elgoibarko Itzulikoak 6:00etan irtengo dira Kalegoen plazatik, eta 39 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute herria inguratzen duten mendiak igo eta jaitsez. Guztira, 2.000 metro inguruko desnibel positiboa gainditu beharko dute. Umeek Itzulitxoan parte hartzeko aukera izango dute. 8:30ean irtengo dira Kalegoen plazatik, eta 10:00etan, Idotorbetik.

Bigarren aukera hori aukeratzen dutenei ibilgailua Idotorben aparkatzeko eskatu diete antolatzaileek eta ez Aubixa inguruko errepide bazterrean. Itzulitxoko partaideek Aiastiako anoa postuan berrituko dituzte indarrak, 12:00etan, denak elkarrekin herrira jaitsi aurretik. Finalista Eguneko dominak banatzeko ekitaldia 13:30ean egingo dute Kalegoen plazan. Aurten 77 lagunek jasoko dituzte dominak.



estu hartu zuten liderra. Neurketa lehiatu baten ostean, 23-28 irabazi zuten bisitariek. Partidaren ostean etorri zen omenaldiaren bigarren zatia. Txarangakoak kantxa erdira gerturatu ziren eta tronpeta eman zioten Izetari. Honek, hatzetan erresina arrastoak izanagatik, tronpeta jotzeari

ekin zion eta Mauxitxakoen laguntzaz jausika eta dantzan jarri zituzten Alcortako jokalariki eta harmailtan bildutako zaleak. Hiru pieza jo zituzten, demaseko giroa sortuz. Hala, Izetak, bere bi afizioak uztartuta esan dio agur horietako bati, eskubaloari.

Euskadiko selekzioarekin lehiatu da Eneko Ortega, afizionatuekin



Lazkaomendiko lasterketa entzutetsua jokatu zuten joan zen zapatuan Lazkaon, eta Elgoibarko Lagun Taldeakeko Eneko Ortegak sasoi betean dela erakutsi zuen berriro. Lazkaoko plazan hasi eta Lazkaomendin bukatu zen. 100 kilometroko ibilbidea osatu zuten guztira, eta Eneko Ortegak (BESA-Laboral Kutxa) bigarren egin zuen, Iker Gomezen atzetik (Burundatxe). Biharamunean, domekan, afizionatuen Natxituako Sari Nagusia jokatu zuen Ortegak, Euskadiko selekzioarekin. Ez zen gure ordezkari bakarria izan lasterketa horretan, izan ere Eiser-Hirumet taldeko Imanol Alvarez eta Elgoibarko lagun Taldeatik irtendako Mikel Perez Obanos, Jokin Amorrosta eta Beñat Fernandez ere tropelean baitziren. Imanol Alvarez egin zuen guztietan denborarik onena, hamargarren sailkatuta.

Bestalde, Gipuzkoako selekzioaren deia jaso du Ortegak asteburuan Gironde Tourra jokatzeke.

LANA**Eskaerak**

Asteburuetan lan egiteko prest nago, adinekoak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Esperientzia handia. 631 125 127

Umeak zaintzeko prest nago, uda sasoiari eta aurretik ere bai. 688 865 250

Adinekoak zaintzeko edo laguntzaile lanak egiteko prest nago. Berehala lanean hasteko moduan nago. Esperientzia daukat. 632 415 374

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Orduka. Lan horiekien zerikusia duten ikasketak eginak ditut. Garbiketari lanak ere egiten ditut. 631 785 168

Eskaintza

Batxilergo lehenengo mailako ikasle batek Kimika eskolak jasoko lituzke. Presazkoa da, azterketa prestatzeko behar duelako laguntza. 669 339 529

KINTO OSPAKIZUNAK

1973an jaiotako kinto ospakizuna, ekainaren 10ean, Belaustegin. 12:00etan luntxa, Zubi Ondo elkartean. Autobusa 14:30ean, Txankakuan. 90 € sartu behar dira Laboral Kutxan, maiatzaren 31rako: ES69 3035 0007 27 0071143415

ETXEBIZITZAK

Pisua alokagai, Donostian, ekainean eta uztailen. Oso argitsua, gela guztiek kanpoaldera ematen dute. Bi komun ditu eta balkoia. 688 687 820

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).
Autoak saltzea: 18€.
Bestelakoak: 10€.
Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).
Autoak saltzea: 15€.
Bestelakoak: 8€.
Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



LAGUNAK
colchoneria textil hogar

+



1. PIKE-EHUN EKOLOGIKOKA
2. AIRFILL EHUNA
3. POLITEX - 4. BROTEX
5. HIRU DIMENTSIOKO EHUNA
6. AIREZTAPEN-BALBULAK
7. BONNELL TEKNOLOGIAKO OHE-MALGUKIAK
8. INGURU-KARENAJEA



Luzera:	90	105	135	150
Prezioa:	560€	635€	725€	765€

180 cm-ko luzerako koltzoietan %5 gehituko da prezioa, eta 200cm-koetan, %10

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Eskola Adrestituzioaren Lanbide-Statutua

Gure komunitatean arropa erabat bustita zintzilikatzen duen bizilagun bat dago, eta gainerakoek arropak bustitzen ditu. Jakin nahi nuke nola konpondu dezakegun hori.

Zuk aurkezten diguzun arazo hau uste baino ohikoagoa da, eta haserre ugari sortzen ditu bizilagunen artean. Ez dago inon jasota gai honen aurrean nola jokatu behar den, ezinezkoa delako ordenantzetan kasuistika guztiak batzea. Legeak printzipio batzuk jasotzen ditu, zehazteko bizilagun batek besteekiko izan behar duen jokabidea nolakoa izan behar den. Printzipio horiek zentzu komunean oinarritzen dira; min mota guztiak eta eragiten diren kalte guztiak jasotzen dira bertan. Zuk diozun kalte txiki horren neurrikoak ere. Baina kalte txiki horien kontrako neurriak hartzea zaila da, erreklamazio formal bat egitea neuriz kanpo legokeelako. Irtenbidea, beraz, jendearen zentzu onaren arabera izango da. Eta ez soilik kaltetuena, baizik eta ingurukoena ere, horien papera erabakiorra izaten delako askotan horrelakoetan. Gerta daiteke baita ere muga guztiak gaingitu eta haserre pertsonalak sortzea.

ONDORIOA: Ez da beharrezkoa legera jotzea arazo honi irtenbidea emateko. Pertsonen borondate onez konpondu beharko litzateke, bizi lagun guztientzako hobereana den irtenbidea aurkituz eta arazoa modu baketsuan konponuz.

660 969 679
rosapf@telefonica.net

AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Teo**, gaur 11 urte bete dituzulako. Muxuak, familiakoen partez.



Zorionak, **Davin**, gaur urtetxo bat bete duzulako! Muxuak, etxekoekin partez.



Zorionak, **Leire**, bihar 7 urte egingo dituzulako. Muxu asko aitaxoren eta Zarauzko familiaren partez.



Zorionak, **Ekaitz**, asteazkenean 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoekin partez. Maite zaitugu!



Zorionak, **Laia**, asteazkenean 7 urte beteko dituzulako. Muxuak izebaren, amamaren eta, bereziki, Sararen partez.



Zorionak, **Leire**, bihar 7 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoekin partez. Asko maite zaitugu.



Gure mutikoa nagusitu da! 9 urte, gu zoriontsu egiten. Besarkada bat, **Aimar**, horrenbeste maite zaitugun familiakoekin partez.



Zorionak, **Ibon!** 11 urte! Patxo erraldoi bat, txapeladun! Jarraitu horrela, guztiaz gozatzen.



Zorionak, **Asier**, maiatzaren 17an 6 urte beteko dituzulako! Aittitta, ama eta senideekin partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Nikole!** 5 urte potolo! Muxu bat etxeko guztien, eta bereziki, Manexen partez.



Zorionak, **Maddi eta Ekhi!** Gozatu zuen egunaz eta muxu handi bana etxeko guztien partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



60 urte
elkarrekin eta elkarrentzat

maitasuna
familia
lagunartea
bizipoza
zoriona!

12 BARIKUA**16:30** Odol ateratzeak.

Jubilatuaren biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

18:30 7. arteari buruzko kafe tertulia. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan.**18:30-20:10** Errigora produktuak jasotzeko eguna Mendaron. Jubilatuen biltokian.**18:30** Argazki erakusketaren inaugurazioa: 'Nor eta non. Begirada bat railowsky bildumari'. Ongarri argazki taldeak antolatuta, Kultur Etxeko erakusketa gelan, hilaren 26ra arte.**19:00** Mendaroko EH Bilduren zerrenda babesteko argazkia ateratzea. Mendaroko Herriko Enparantzan.**13 ZAPATUA****11:30** Ibaia herrian

txertatzeko proiektuaren aurkezpena. EH Bilduk egingo du. Goikoerrota zubian batuko dira (Santa Ana kale amaieran, bidegorri hasieran).

19:30 Bisita gidatua: 'Nor eta non. Begirada bat Railowsky bildumari. Juan Pedro Font de Morak aurkeztuta, Kultur Etxeko erakusketa gelan.**17 EGUAZTENA****17:00 eta 17:30** Niala magoa, Udal liburutegian.

Lehenengo saioa, LH1ekoentzat, eta bigarrena, LH2 eta LH3koentzat.

19 BARIKUA**19:00** Euskal dantzari bakarlarien erakustaldia. Kalegoen plazan.**20:30** Gaueko zerua ezagutzeko irteera. Idotorbeko frontoian. Jokin Martinezek gidatuko du saioa.**MORKAIKO EGUNA**

Maiatzak 13, zapatua

06:00 Elgoibarko Itzuli handia, Kalegoen plazatik abiatuta.**08:30** Elgoibarko Itzuli txikia, Kalegoen plazatik abiatuta.**10:00** Elgoibarko Itzuli txikia, Idotorbetik abiatuta.**13:30** Finalista Eguneko dominen banaketa, Kalegoen plazan.**Zinea****'Un paseo con Madeleine'**

12 barikua: 19:00

13 zapatua: 19:00 / 22:15

14 domeka: 19:00

15 astelehena: 21:00

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)
OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.**MAIATZA**12 BARIKUA
13 ZAPATUA
14 DOMEKA
15 ASTELEHENA
16 MARTITZENA
17 EGUAZTENA
18 EGUENA
19 BARIKUA**Egunez**Garitaonandia
Arriola
Arriola
■ Fernandez
Yudego
■ Oruesagasti
Barrenetxea
■ Ibañez**2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00****Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)**
943 203 052■ Fernandez:
Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142■ Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384



Vicente Maiztegi Agirregomezkorta

2023ko maiatzaren 4an hil zen, 95 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

***Zure hutsunea ezin da bete,
gure oroimenean izango zaitugu betirako.***

Etxekoak



***Eskerrik asko, ama, amama,
emandako ezagutza
eta maitasun guztiagatik.***

Etxekoak



Maria Aranzazu Gabilondo Muguerza

2023ko maiatzaren 7an hil zen, 72 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Julia Larrañaga Garate

2023ko maiatzaren 7an hil zen, 101 urte zituela.



***Agarre-Txikin sortu zinen ta
gero kalera bajatu
mende batean bizitakoa
ezin bi hitzetan kontatu
hainbeste urte hartu dituenak
badauka nonbait sekretu
gure Julik etxekoengandik
maitasun handia jaso du.***

Etxekoak

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



EAJ
PNV

ZUREKIN
ELGOIBARREK
AURRERA EGITEN
JARRAI DEZAN